KOSTUEN KONTABILITATEA 2019-ko EKAINA

Teoria

Arrazoitu itzazu erantzun guztiak

1) Aipa ezazu kontzeptu hauek gastuak edo kostuak al diren eta biak baldin badira, kopuru berdina ala desberdinagatik.

Kontzeptuak	Finantzarioa	Kostuetan	Azalpenak
Enpresaren kargurako Gizarte Segurantza			
Komunikazioak: Telefonoa			
Produktu Bukatuen Aurrez Kalkulaturiko Gutxiketak			
Merkatal eragiketengatik baliogalera			
Lehengaien Erosketa			
Sozietateen gaineko Zerga			
Argindarra			

2) Aipa ezazu kostu hauek Aldakorrak, Finkoak edo Mixtoak diren eta era berean Zuzenak edo Zeharkakoak al diren sailekiko edo produktuekiko.

Kontzeptuak	K. A.	K. F.	Mixtoa	Zuzena sailarentzat	Zeharkak sailentzat	Zuzena produktuarentzat	Zeharkako produktuentzat	Azalpenak
Enpresako Jerentearen Langile kostua								
Produktu Bukatuen Biltegiaren Alokairua								
Telefonoa Kuota finkoarekin eta kontsumoaren arabera								
Lehengaien kontsumoa								
Sail bateko Makineriaren Amortizazioa								
Sail bateko langile baten, Enpresaren kargurako Gizarte Segurantza								

3) ¿Zer dira kostu ekidingarri eta ekidinezinak? ¿Zertarako balio bereizketa honek?

4) a) Aipa ezazu: Lehengaiaren aldeko desbideraketa teknikoa sor dezaken kanpoko arrazoi bat.
b) Aipa ezazu: Esku-lan zuzenaren aldeko desbideraketa ekonomikoa sor dezaken kanpoko arrazoi bat.

Arrazoitu itzazu erantzunak eta aipatu nola eragingo dioten, datorren ekitaldiko kostu Standard-en ezarpenari.

5) Gida aurrekontuaren eskema egin eta azaldu aurrekontu garrantzitsuenak egiteko garaian, jarraitu beharreko ordena.

Lehenengo Ariketa: Kostu Historikoak

Hotel batek, bere gela bikoitzek, garai altuan duten kostu eta emaitzak aztertu nahi ditu.

Garai altuko hilabete bati dagozkion datuak (eta beharrezkoak diren beste datu batzuk):

- Gehienezko Iharduera: 50 gela x 30 egonaldi/hilabeteko = 1.500 egonaldi/hilabeteko.
- Iharduera Normala: 1.000 egonaldi/hilabeteko.
- Benetazko Iharduera aztertutako hilabetean: 1.400 egonaldi.
- Erabilitako gela bakoitzeko, egun bakoitzeko kostu Aldakorrak: Argindarra, ura, garbiketa, e.a.: 15 euro.
- Gelen hilabeteko kostu Finkoak: 10.000 euro.
- Gelei esleitu beharrezko Merkatal kostuak: 13.000 euro.
- Gelei esleitu beharrezko Administrazio kostuak: 12.000 euro.
- Gelen sarrerak: 70 euro gela eta egun bakoitzeko (BEZ-a kontuan izan gabe).

Eskatzen dena:

1) Egitura Funtzionala eta kostu finkoen Egozpen razionala, iharduera normalarekiko jarraituz: Gela bakoitzaren eguneko kostua kalkulatu.
2) Egitura berdinaren arabera: Marjenak eta emaitza kalkulatu.
3) Emaitzari buruzko ausnarketa: ¿Emaitza berbera lortuko al zen beste kostu eredu baten bitartez? Arrazoitu ezazu erantzuna.

Bigarren Ariketa: Kostu Historikoak- Gutxiketak

Gozokigintza arloko empresa batek bere bi produktuen kostuak kalkulatzea erabakitzen du: Zaporetsu "Z" eta Gozoa "G".

Gozoki bakoitzaren osagarri kontsumoa hauxe da:

- X lehengaia: 50 gramo, "Z" produktu bakoitzarentzat eta 40 gramo, "G" produktu bakoitzarentzat. X lehengairen kostua: 10 €/ kg.

- Y lehengaia: 20 gramo, "Z" produktu bakoitzarentzat eta 50 gramo, "G" produktu bakoitzarentzat. X lehengairen kostua: 15 €/ kg.

- "Z" produktu bakoitzarentzat, 0,2 € gai laguntzaile behar dira eta "G" produktu bakoitzarentzat. 0,3 € .

Aurrikusitako gutxiketak:

- X lehengaia: Gramo bat, bai "Z" eta bai "G", gozoki bakoitzeko.

- Y lehengaia: Gramo bat, edozein gozokian barneratutako 20 gramo bakoitzeko.

- Gai laguntzaileak: 0,01 €, goxoki bakoitzeko.

- "Z" produktua: Benetazko ekoizpenaren % 2a.

- "G" produktua: Benetazko ekoizpenaren % 3a.

Produktu bukatuen kasuan, gutxiketa hauek, gozokiak gaizki ekoizteagatik edo garaian ez saltzeagatik sor daitezke.

Benetazko Ekoizpena: 3.000 "Z" gozoki eta 2.000 "G" gozoki.

Ekoizpen kostuak:

- 1.040 € egindako 5.000 gozokientzat, kontutan izanik "G" gozoki bakoitzak, "Z" gozoki bakoitzak baino % 10 eko kostu handiagoa duela.

Benetazko Kontsumoak:

- "X" Lehengaia: 240 kg. (160 "Z"-renak eta 80 "G"-renak).

- "Y" Lehengaia: 165 kg. (65 "Z"-renak eta 100 "G"-renak).

- Gai Laguntzaileak: 1.200 €. (600 "Z"-renak eta 600 "G"-renak).

Benetazko Gutxiketak:

- "Z" produktua: 40 unitate eta "G" produktua: 70 unitate.

<u>Eskatzen da:</u>

1) Lehengaietan, gai laguntzailetan eta "Z" eta "G" Produktu bukatuetan; **Aurrez kalkulaturiko gutxiketak** kalkulatu (bai unitateetan eta baita dirutan ere).
2) Produktu bakoitzaren aurrikusitako kostua kalkulatu.
3) "X" eta "Y" lehengaien, **Benetazko gutxiketak** (unitate fisikoetan) kalkulatu.
4) "X" eta "Y" lehengaien, gai laguntzaileen eta "Z" eta "G" Produktu bukatuen; **Gerora kalkulaturiko gutxiketak** (bai unitateetan eta baita dirutan ere). Enpresaren emaitzari gutxiketa hauek nola eragiten dioten aipatuz.

Hirugarren Ariketa: Kostu Standard-ak

Enpresa batek, 50 produktu bukatu ekoiztea **aurrikusten du**, horretarako bere kostuak hauek izango direlarik:

- 50 kg. "A" lehengai (500 €/kg).
- 75 kg. "B" lehengai (300 €/kg).
- 40.000 € (Hornikuntza Gastu Bereziak).
- Esku-lan zuzeneko 50 ordu (Aurrekontu finkoa 15.000 € eta aldakorra 45.000 €).

Benetazko datuak:

- Ekoizpena: 40 unitate bukatuak eta 10 Bideango produktu, hauetako bakoitzak, A lehengairen % 100, B lehengairen % 90 eta esku-lan zuzenaren % 40a daramalarik.
- "A" lehengairen Erosketak: 50 kg. (450 €/kg).
- "B" lehengairen Erosketak: 90 kg. (350 €/kg). Hauetatik, 80 kg.kontsumitu dira.
- 55.000 € (Hornikuntza Gastu Bereziak).
- 48 h. (esku-lan zuzena), bere kostua guztira 55.000 €-takoa izan da, kontutan izanik, kostu finkoak, aurrikusitako berberak izan direla.
- Hasierako izakinak: 50 Bideango produktu (B lehengairen %20 eta esku-lan zuzenaren % 40 falta zaienak). A lehengaiaren hasierako izakinak: 10 kg.
- A lehengaiaren bukaerako izakinak: 5 kg.

OHARRA: Hornikuntza Gastu Bereziak, Eurotan adierazitako lehengai kontsumoaren arabera banatzen dira.

Eskatzen da

1) Bakoitzeko kostu Standard-a kalkulatu.

2) **Azaldu. Gertatzen denaren azalpen egokirik gabe, kalkuku hutsak ez du ezer balio.**

a) Prezioen desbideraketa eta lehengaien kopuruen desbideraketak.

b) Hornikuntza Gastu Berezien desbideraketa globala.

c) Esku-lan zuzeneko desbideraketa tekniko eta ekonomikoa (Iharduera eta aurrekontuaren desbideraketak, ere).

3) Aipa ezazu ariketa honen bi desbideraketa garrantzitsuenen ahalezko barne arrazoiak.